

DATUAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

Tratamenduaren izena	KOLONEKO MINBIZIAREN PROGRAMA
Tratamenduaren arduraduna eta harremanetarako datuak	Osakidetza – Euskal osasun zerbitzua / Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza – Araba, 45 – 01006 Vitoria-Gasteiz
	Osakidetzako Datuen Babeserako ordezkaria: – Araba kalea, 45 – Vitoria-Gasteiz – DBO-DPD@osakidetza.eus
Tratamenduaren xedea	Kolon eta ondesteko minbizia prebenitzeko programa koordinatzea; programako parte-hartzaileen zitazioak egitea; informazio-fluxuak kudeatzea eta programaren emaitzak ebaluatzea. Zerrenda eta adierazleen tratamendu estatistikoa egitea, hala prozesuen kalitatearen nola emaitzen eta eraginaren monitorizazioa eta ebaluazioa egiteko. Osasun agintariek Osasun publikoko prebentziozko neurri horren eraginkortasuna eta kostu-eraginkortasuna ebaluatzea.
Datuak gordetzeko epea	30 urte.
Tratamenduaren oinarri juridikoa	Interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzea, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legeak eta Osasun Publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera.
Hartzaileak	Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.
Eskubideak gauzatzea	Interesdunak datuetara sartzeko eta horiek zuzendu edo ezabatzeko, eta tratamendua mugatzeko edo horri uko egiteko eskubideak gauzatu ahal izango ditu idatzi bat zuzenduta Osakidetza - Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza, Araba kalea 45 - 01006 Vitoria-Gasteiz helbidera, NANaren edo beste nortasun-dokumentu baliokide baten kopia erantsita.
	Interesdunak, halaber, eskubidea du Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean erreklamazioa aurkezteko.
Datuen jatorria eta kategoriak	Datuak interesdunak berak, Eustatek, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osasun Ministerioak (INDE; Heriotzen Indize Nazionala) eman dituzte.
	Identifikazio-datuak.

